

## **2014KO URRIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2014ko urriaren 30ean, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA

JON PELI HORMAECHE ASOLO zinegotzia ez zan bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2014KO IRAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko irailaren 25eko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

### **2.- 2014KO URRIAREN 2AN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko urriaren 2ko aparteko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

### **3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON ETA URRIAREN 16KO 331/2014 ZK. DEKRETUA BERRONETSI.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

*306/2014.- Gasaren inguruko informazio kanpaina bideratzeko asmoz, lur publikoa okupatzeko udal baimena.*

*307/2014.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailak Bakioko Udalari egindako ibilgailuaren doako lagapena onartzea.*

*308/2014.- Eraikin bateko fatxadak barriztatzeko udal lizentzia.*

*309/2014.- Bakioko arau subsidiarioetako UE G.2. uri lurzoruko jardununearen esparruari jagokonez, jarduketa sistema aldarazoteko espedientea hasikera batean onartzea, konpentsazio sistemaren ordeztan lankidetzan sistema ezartzeko.*

*310/2014.- Herriko surf txapelketa egiteko udal baimena.*

*311/2014.- Baserri baten inguruko itxitura egiteko udal lizentzia.*

*312/2014.- Teila barriak ipinteko udal lizentzia.*

*313/2014.- Zinegotzi bateri ezkontzeko baimena emotea.*

*314/2014.- Obra txikiko kontratua Aqualia enpresari esleitzea.*

*315/2014.- Oktober Jaia ospatzeko udal baimena emotea.*

*316/2014.- Autokarabenen ekitaldia egiteko udal baimena emotea.*

*317/2014.- Barruko erreforma bat egiteko udal lizentzia.*

*318/2014.- Doniene bezperako suaren ekitaldiari jagokon diru-laguntzinoa.*

*319/2014.- Gorka Renteria Garai eta Paloma Epalza Garcés de los Fayos zinegotziak BIZKAIKOA-Bizkaiko Foru Aldundiaren enpresa erakunde publikoaren eta Bakioko Udalaren arteko hitzarmenaren jarraipen batzordeko kide izendatzea.*

*320/2014.- Komunitate bateko fatxada konpontzeko udal lizentzia emotea.*

321/2014.- Zergadunei ibilgailuetan izandako bajengatik, isunetan onartutako erreklamazioengatik, kobrantzen bikoizketengatik itzuli beharreko kopurua onartzea.

322/2014.- Teilatua iragazgaizteko udal lizentzia

323/2014.- Teilatua iragazgaizteko udal lizentzia.

324/2014.- Barruko erroforma bat egiteko udal lizentzia.

325/2014.- Eskolako agendeari jagokon diru-laguntzinoa.

326/2014.- Kultur Etxeko bideo-gela erabilteko udal baimena.

327/2014.- Teilatua konpontzeko udal lizentzia.

328/2014.- Komun bateko bainuontzia aldatzeko udal lizentzia.

329/2014.- Zinegotzi bateri ezkontzeko baimena emotea.

330/2014.- Kredituak aldarazteko espediente onestea.

331/2014.- José Antonio Olabarri Construcciones S.L. enpresaren idatzia onartzea.

332/2014.- Komun bateko bainuontzia aldatzeko udal lizentzia.

333/2014.- Pasabideko plakak itzultzea.

334/2014.- Bideo-gela erabilteko udal baimena.

335/2014.- Teresa Nebreda San Salvador erroldatzea.

336/2014.- Imanol Garay Jaureguizar erroldatzea.

337/2014.- Espediente bat hastea pertsona bateri Biztanleen Udal Erroldan baja emoteko.

a) Felix Jauregizar zinegotziak, 314/2014 zk. dekretuaren ganeko azalpena entzun gura daua adierazo dau. Izan be, erabagi horretan ageri da Uretako bidea konpontzeko Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailekoari diru-laguntza eskatu jakola, bidea paseoak edo jarduera fisikoak egiteko leku ona dala argudiatuz. Beraz, horrezaz esan beharra daukagu bidea konpontzeko beharrak egitea ondo dagoan arren, osasun saileko funtsak beharrok finantzatzeko erabiltea ez dala egokia, diru hori osasun arloan dagozan beharrianetara bideratu beharrean, ganera, ikusita arlo horretan beharrian nabariak dagozala.

Aitor Apraiz alkateak erantzun deutso esanez: obrak egiteko dirulaguntza Osasun Sailak kaleratu dauan arautegi baten pentzura eskatu dira, obrak araudi horreek ezartzen dauzan helburuak beteten dauzala kontuan hartuz, Hortaz, dirulaguntzak, datorren erakundetik datorrela, hartu egin behar dira, beti be dirulaguntzok arautzen dabezan arautegietako baldintzak beteten badira behintzat.

Felixek dinotso Uretako bidea inguruan dagozan pabiloietara eta landetxera heltzeko erabilten dala, eta ez udal dekretuan dakarren modura paseorako edo jarduera fisikoak egiteko, danok dakigun modura, ze hori esatea ez da zuzena. Horrenbestez, logikoagoa izango zan dirulaguntza beste Sail bateri eskatzea, esaterako turismoari edo nekazaritzari, bidea zertarako erabilten dan kontuan hartuz.

Aitorrek dinotso: Bakion landa lurrean hiru bide dagoz pasealeku modura markauta, eta konponketa obrak egin diran bidea hor barruan dago. Beraz, egia da Uretako bidea inguruko eraikinetara heltzeko erabilten dala, baina, bai eta ibilbide modura be.

Aitorren eta Felixen artean eztabaida izan da, eta bakotxak bere argudioei eutsiz amaitu da.

331/2014 zk. Dekreturen berronesteari buruz hauxe:

b) Felix Jauregizar zinegotziak, Bildu-Bakio udal taldearen izenean, dino: *guk ezin dogu onarpenik emon, ezta eritxirik be, dekretuaren espedienteko agirien barririk ez dogulako izan. Izan be, dekretuan bertan azaltzen da txostenak eta zenbakiak dagozala, eta horren kopiak ez deuskuez emon, beste espediente batzuetako txostenak emoten deskuezan lez. Beraz, ez da zuzena batzar honetan gai horrerri buruzko erabagia hartzea, gure taldeak erabagia hartu eta arrazoitzeko orduan agiri guztiak eskuragarri izan ez dauzanean. Ganera, pasa dan barikuan jaso genduan udalbatzarren aztergaien zirriborroan ez zan ageri dekretua berronetsi beharra.*

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldearen izenean, dino: *Felixek esandakoa aitzakia baino ez da, ze Bilduk dekretuaren kopia pasa dan barikuan jaso eban, gero, oraingo asteleheneko informazino batzordean azalpen zabala emon da dekretuaren edukiaren nondik norakoa azalduz, eta, azkenik, Bilduko zinegotziek astelehenetik gaur arte egon dan tartean espedientea aztertzeo aukerea izan dabe. Hortaz, ez da ikusten dekretuaren ganean erabagia ez hartzeko motiborik dagoenik.*

BILDUko zein EAJtako zinegotziek idazkariaren eritxia eskatu daben ezkerro, horrek ondorengo adierazo dau:

1.- *Egia dan arren, txostenen kopiarik ez dala emon, beste txosten batzuen emon dan moduan, egia be bada ez dagoala udalbatzarretan erabagiteko diran espedienteetako kopiak emoteko obligazinatorik zinegotziek eskatu ezik, hau da, zinegotziak eskubidea dauka espedientea aztertu eta agirien kopia eskatzeko, baina idazkariak ez dauka obligazinatorik eskatu ez diran agirien kopiak emoteko.*

2.- *Dekretuaren kopia zinegotzietei lehengo asteko barikuan bialdu jaken, ostean, aste honetako informazino batzordean horren maminari buruzko azalpenak emon ziran eta, azkenik, astelehenetik eta hona legeak agintzen dauzan egunak egon dira gura izan dauanak espedientea aztertzeo; beraz horren aldetik ez legoke eragozpenik egon behar dekretuari buruzko erabagia hartzeko, nire ustez, zinegotziak espedientea aztertzeo*

*dauan eskubidea bermatu dalako. Dana dala, Felixek aitatu dauana aitatuta, zuhurtziaren printzipioari eutsiz, egin daitekena da oraingo honetan erabagirik ez hartu eta astelehenean informazio batzordean eztabaidatu eta, ziur asko, datorren egunean egingo dan udalbatzarreko aztergaiaren barruan sartu 331/2014 dekretuaren berronespena.*

Eztabaidatu ostean, Udalaren Osoko Bilkurak, 331/2014 zk. dekretuari buruzko erabagia gaur bertan ez hartzea erabagi dau.

#### **4.- BAKIOKO KIROLDEGIA ERABILTEKO UDAL ARAUDIAREN EZEZTAPENA HASIKERA BATEAN ONARTU.**

Aitor Apraiz alkateak adierazo dau, Informazio Batzordean azaldu zan modura, hauxe esan beharra dagoala: *Bakioko kiroldegiaren kudeaketa eta ustiapena “UZTAIAK KUDEAKETA S.L.” eta “GUEDAN Servicios Deportivos S.A.” enpresek osotutako aldi baterako enpresen alkarteari esleitu jakola eta, azken honek aurkeztutako funtzionamendu araudiak kiroldegiaren erabilera arautzen dauan ezkerero, Bakioko udal kiroldegia erabilteko udal araudia ezeztatzeke erabagia hartzea proposatzen da — berau Bakioko Udalbatzak, 2006ko maiatzaren 31n egindako ohiko osoko bilkuran onartu eta 2006ko abuztuaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean sartu zan indarrean —, araudi biak, aldi berean, indarrean egonik nahasmena sortu ez daiten.*

Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO udal taldearen izenean, dino eurak udal araudia ezeztatzeke proposamenagaz ez datozela bat, kiroldegia publikoa dan ezkerero, horren funtzionamendua arautuko dauan udal araudia behar dualako.

Segiduan, idazkariaren txostena eta tramitatutako espedientea kontuan izanik, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse, eta, horrela bada, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, korporazinoko zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

**1.-2006ko abuztuaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Bakioko kiroldegia erabilteko udal araudiaren ezeztapena hasikera baten onartzea.**

**2.- Erabagi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta herriko iragarki taulan argitaratzea, horreen bidez, hogeita hamar asteguneko epea zabalduz, interesatuek arrazoibideak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Arrazoibide edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabagi hori behin betikotzat hartuko da.**

BILDU-BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao eta Miren Luke Verdes zinegotziek, barriz, udal araudia ezeztatzearen aurkako botoa emon dabe, Felixek egindako adierazpenagaz bat etorritz.

## **5.- “L” EREMUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDARAZPEN ZEHATZA BEHIN-BEHINEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Aitor Apraiz alkateak adierazo dau 2014-06-26ko udalbatzak “L” eremuko arau subsidiarioen aldarazpen zehatza hasikera batean onartzea erabagi ostean, espedientea jendaurrean egon da, bai herriko taula eta web orrian, bai eta egunkarietan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean be argitaratutako iragarkien bidez, eta alegazinoak aurkeztu ez dan ezkerro, aldarazpena behin-behinean onartzea proposatzen da.

Felix Jauregizar zinegotziak dino: herriko arau subsidiarioen berrikuspina egiten gabiltzan ezkerro, uste dogu aldarazpen hori berrikuspina horren barruan sartu behar dala. Horrezaz gain, herritarrek parte hartzeko programea berandu baten gauzatu zan, alegazinoak aurkezteko epea amaituta, beraz, parte hartze hori aldarazpena hasikera baten onartu baino lehen egin behar zan, eta ez ostean, eta, ganera uste dogu, egin dala tramitea beteteko bakarrik, lurzoru legeak programa hori egitera behartzen dala, baina ez udal gobernuaren nahia izan dalako herritarrek parte hartzea.

Aitorrek dinotso herritarrek parte hartzeko programea alegazinoak aurkezteko epea amaituta egin zan arren, egia da programa barruan egin zan jendaurreko ekitaldian adierazo zala oraindik gura ebanak alegazinoak aurkeztu eikezala.

Segiduan, idazkariaren txostena eta tramitatutako espedientea kontuan izanik, toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 22,2,c) eta 47.2.11) artikuluen arabera, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoagaz, korporazinoako zinegotzien legeko kopuruaren gehiengo osoa izanik, Bakioko Udalbatzak, erabagi hau hartu dau:

**1.- “L” eremuko arau subsidiarioen aldarazpen zehatza behin-behinean onartzea, beti be, udalaren ekimenez, “Arkigest Estudioa S.L.” enpresek idatzitako 2013ko abenduaren 26ko egitasmoaren arabera.**

**2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Batzordeari bialtzea beharrezko txostena egin daian; txosten hori loteslea izango da lurralde antolamenduaren tresnen aldarazpenaren egokitzapenari eta generako alderdi sektorialeiei jagokenez.**

BILDU-BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao eta Miren Luke Verdes zinegotziek, barriz, aitatutako aldarazpena onartzearen aurkako botoa emon dabe, Felixek egindako adierazpenagaz bat etorriz.

## **6.- TRAKZINO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GANEKO ZERGEA ARAUPETU DAUAN ZERGA ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONARTU.**

Zinegotziek proposatzen dan aldarazpenaren edukiaren jakitun diran ezkerro, eta aldarazpenaren ganeko azalpenak Informazino Batzordean emon diran ezkerro be, zinegotziek bozkatzeari ekin deutse, eta, ondorioz, Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, erabagi hau hartu dau:

**1.- Trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergea arautzen dauan ordenantza fiskalaren aldarazpena behin-behinean onartzea.**

**Aldarazpenak ordenantza fiskalaren 6. artikuluan ageri diran tarifa batzuei eragiten deutso, era honetara onartuta geratu daiezan:**

<i>14-15,99 zerga-zaldi</i>	<i>149,93</i>
<i>16-19,99 zerga-zaldi</i>	<i>186,75</i>
<i>20 zerga-zaldi baino gehiago</i>	<i>216,12</i>

**Gainontzeko tarifak ez dabe aldaketarik izan.**

**2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartu beharko da.**

**3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik aurrera sartuko da indarrean, eta horrela jarraituko dau aldatzen ez dan bitartean.**

**7.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DALA-ETA:**

**A) BILDU/BAKIO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO TESTUA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

**B) EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO TESTUA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

A) BILDU/BAKIO udal taldeak aurkeztutako testua:

Lehenengo eta behin, Amets Jauregizar zinegotziak, BILDU/BAKIO udal taldeak aurkeztutako testua irakurtzeari ekin deutso, edukia hauxe izanik:

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA – Euskal Herria Bildu**  
**EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BIOLENTZIAREN KONTRAKO**  
**NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroak 25 dela eta, “Emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna”, Euskal Herria Bildutik ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Eta helburu honek, bizitza kolektiboaren kudeaketa antolatzen eta kudeatzen diharduen instituzio publiko guztietan lehentasunezkoa behar du izan eguneroko jardunean.

Aurten berriro ere, modu anitzean gauzatutako eta emakume ugari eragindako biolentzia matxista izan dugu gure artean. Feminizidioa adierazle nabarmenena duen biolentzia matxista hain zuzen ere. Desagertzetik urrunduta eta geure jendarterean errotuta dagoen biolentzia matxista honek, aurpegi ugari ditu, tartean eraso fisiko eta sexualak, baina ekonmikoak eta hitzezkoak ere badaudelarik. Aurten ordea, eraso ideologiko eta diskurtsibo ugari izan dugu, hainbat iritzi gune, epaile eta ordezkari politikoren aldetik.

Horregatik diogu biolentzia matxistari aurre egiteko, bizitzaren esparru orotan berdintasunezko harremanak oinarri izango dituen jendarterean eraldaketa ezinbestekoa dela.

Eta zentzu honetan diogu, biolentzia ez litzatekeela gauzatu ahalko, baldin eta onartzen eta posible egiten duen jendarteratze mekanismoak egongo ez balira; hainbatetan biolentzia kontziente edo inkontzienteki arrazoituztat, beharrezkotzat edo saihets ezinezkotzat jotzen baita. Eta honela, erlijioak, hizkuntzak, komunikabideak, familiak eta hezkuntzak biolentzia egonkortu dadin, jendarteratze mekanismoen eragile bilakatzen dira.

Horregatik, emakumeok biolentzia matxistarik gabeko bizitza libreak bizi ahal izateko, burutu beharreko lan eta estrategiek ondorengo urratsetan behar dute izan oinarri:

- Biolentzia matxistari aurre egiteko garaian, emakume eta gizonen arteko bazterkeria estrukturalaren kontrako lanketa hartu oinarri.
- Biolentzia modu anitz eta ugariak bistaratu, biolentzia horiek gauzatzen diren espazio ugariak agerian uztearekin batera.
- Baztertzailak diren adierazpen eta gauzapeen kulturei aurre egin, eta biolentzia matxistaren eragiletzat jo halakotzat hartuak ez baina badiren fenomeno sozio-kultural



eta sinbolikoak, hauen bitartez ematen baita gehienetan biolentzia matxistaren legitimazioa.

- Agerian utzi, prebentzio lana egin eta emango bada aurre egin, beste biolentzia matxista moduei, transfobia, lesbofobia edo homofobiaren modukoei.
- Biolentzia matxistaren aurrean gizonak duten protagonismoa eta jarrera hartzeak aztertzea bultzatu: eraso zer den eta zer ez den identifikatzeko dituzten arazoak, emakumezkoekin eraikitzen dituzten harremanak, balizko jardunbide matxisten aurreko beraien jarrera, edo eraso matxista baten aurrean har lezaketen jarrera pasiboa eraso babestu ez arren.
- Prebentzioa ezinbesteko elementutzat hartu, berdintasuna oinarri izango duten harremanak sortu eta eraikitzeko garaian, hezkuntza formal eta ez formalean eragin beharko dugularik.

Honengatik guztiagatik, Bakioko Udalak, honako konpromisoa hartzen du:

- Berdintasan esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasan politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartuz.
- Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.
- Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.
- Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekina eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.
- Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal guneak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.

Azkenik, dei egiten dugu egun honi begira mugimendu feministak antolatu dituen ekimenekin bat egin eta bertan parte hartzera:

Ostean, alkateak bozkatzeko agindu eta horren emoitza hauxe izan da:

BILDU-BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Alberto Bilbao zinegotziek agiri hori onartzearen alde bozkatu dabe.

EAJ/BAKIO taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek, barriz, testuaren kontrako botoa emon dabe.

Ondorioz, mozinoaren aldeko 4 boto eta kontrako 6 boto zenbatu diran ezkerero, Bakioko Udaltzako ez dau ez dau BILDU-BAKIO taldearen testua onartu.

B) EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako testua:

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako testua irakurri dau, edukia hauxe izanik:

### **EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

*Azaroaren 25a 'Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna' da. Hori dela eta, Bakioko Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistako agerpen mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira.*

*Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrera isolatuak, ezpada mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeen indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Hainbat neurritako jarduera oldarkor eta matxistak dira, baina denek egiten diete eraso –zuzenean edo zeharka– emakumeen osotasunari, askatasunari eta gaitasunari. Zoritxarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean; esate baterako, erasoak jasan dituzten neskek eta emakumeek jarritako salaketan egiazkotasuna zalantzan jartzea, botere-espazioetatik indarkeria hutsaldu eta justifikatu nahian eta gaiari garrantzia kendu nahian egiten diren adierazpen publikoak, edo komunikabide batzuek indarkeriari ematen dioten tratamendu azaleko eta sentsazionalista, besteak beste.*

*Erakunde publikoek gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexista mota oro errotik suntsitzeko ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da programa egonkor eta jarraituak garatzea, indarkeriarik gabeko gizartea lortu ahal izateko. Era berean, programa horiek baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitu behar dira.*

*Indarkeria mota guztiak desagerrarazteko gure konpromiso aktiboan, gure herriko neska eta mutil gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko lanaren aldeko apustu irmoa egiten dugu; izan ere, herri honetan indarkeria matxistak duen*

*eragina arduratzen gaituen errealitatea da. Hori dela eta, aurten ere, jende gaztearekin lan egiten jarraitzen dugu, Beldur Barik programaren markoan.*

*Erakunde publikoek arlo horretan garatu eta sendotu behar ditugu berdintasun politika publikoak, Berdintasun Sailen gidaritzapean, eta Hezkuntza eta Gazteria Sailetatik ere politika estrategikoekin indarrak batzeko ahaleginean. Hori guztia, indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik programaren markoan, betiere, helburu nagusi batekin: esparru guztietatik, emakume gazteen jabekuntza ahalbidetuko duten eta desberdintasun eta indarkeria egoeren aurrean erantzuteko duten gaitasuna sustatuko duten politikak garatzea. Politika horiek, era berean, lana eta gogoeta sustatu behar dute mutilekin, euren protagonismoari eta indarkeria matxistan duten erantzukizunari buruz, erasoak zer den eta zer ez identifikatzeko dituzten zailtasunei buruz, erasoetan daukaten parte-hartze aktiboari buruz edo eraso baten aurrean ikusle pasibo gisa hartzen duten paperari buruz.*

*Beldur Barik estrategia hauetan egingo den lanari esker, indarkeria onartzen duten, indarkeria justifikatzen duten edo erasoak eta emakumeenganako jarrera diskriminatzaileak hutsaltzen dituzten diskurtsoak onartuko ez dituen eta naturalizat hartuko ez dituen gizartea eratzen joango da.*

*Hori guztia dela eta, Bakioko Udalak konpromisoa hartu du:*

- *Beldur Barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.*
- *Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko.*

*Eta, era berean, herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.*

*Azkenik, gonbit egiten dizue, bereziki neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, ‘Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna’ dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.*

Amets Jauregizar zinegotziak dino bozkatzeari ekin aurretik euren botoari buruzko arrazoinamendua egin gura dabela, era honetara:

*Emakumeenganako bortizkeria matxistaren aurka egiten dan edozein ekarpenaren alde gagoz; beraz ez dogu kontrako botorik emongo EAJk aurkeztutako testuari. Baina, ez dogu ikusten nahikoa danik. Udalbatzak azkeneko urte bietan konpromisoak hartu arren aurten da lehenengo bidar “Beldur barik” programa barruan ekintza egiten dana.*

*Esaten dogunean programa egonkor eta jarraituak garatu behar dirala, behintzat plangintzaren bat aurkeztu beharko litzateke. Ze programa mota da hori?, noiz hasi eta noiz amaituko da?. Hau da, udalbatzak EAJ taldeak aurkeztutako emakumeenganako indarkeriaren aurkako mozinoak onartzen dauz, baina gero ez dira onartutako konpromisoak gauzatzen.*

*Arraro iruditzen jaku emakumeenganako indarkeariaren aurkako politika aurrera eroateko alkarlanean aritzeko proposamena egitea EAJ/PNVren mozinoan, gauza ez garenean oposizinoagaz testu bateratu bat aurkezteko.*

Ostean, alkateak bozkatzeko agindu eta horren emoitza hauxe izan da:

EAJ/BAKIO taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek, barriz, testuaren aldeko botoa emon dabe.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Alberto Bilbao zinegotziek, abstenidu egin dira.

Ondorioz, mozinoaren aldeko 6 boto eta kontrako 4 boto zenbatu diran ezkerero, Bakioko Udalbatzak EAJ/PNVren testua onartu egin dau.

## **8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Amets Jauregizar zinegotziak galdetu dau udalbatzarrean egindako galdera edo eskaeraren erantzuna ia noiz jaso behar dan.

Idazkariak dinotso hurrengo udalbatzarrean erantzun behar dala, beranduen be.

Ametsek dino Bildu-Bakio taldeak, irailaren 25eko udalbatzarrean hauxe eskatu ebala: kiroldegia zarratuta egokeran, Alaitasuna eta Atxurra taldeek, partidu ofizialak jokatzeko, beste frontoi eta kiroldegi batzuetara joan izan behar ebela-eta, alkarte horreei kanpora joateak ekarri leizkiezan bidaia gastuak udalak ordaintzeko; ze kiroldegia zarratuta egotea ez zan izan talde horreen errua-eta; ganera, kiroldegia partidu ofizialen denboradea hasi orduko zabalik egon zala berbea emon jakenean. Beraz, jakin gura dogu ia gastuak ordaindu jakezan.

Aitor Apraiz alkateak erantzun deutso esanez kirol taldeakaz hartu-emonetan dabiltzazela, ahaleginak eginez horrelako gorabeherak konpontzeko.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:50ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.